

## IKASTOLAREN BEKA SISTEMA 2018/19 IKASTURTEAN

2018ko abenduaren 12ko Artezkaritza Kontseiluan onartu zen Azkue Lekeitioko Ikastola, Kooperatiba Elkartearen Beka Sistema propioa. Beka hauen helburua Lekeitioko Ikastolan ikasteko muga ekonomikorik ez jartzea da. Dirulaguntza hauek Eusko Jaurlaritzak ematen dituenekin osatuko dira.

Ikastolako beka eskatzeko hauek dira bete beharreko baldintzak:

1. Beheko ehunekoak aplikatu ahal izateko, Eusko Jaurlaritzako beka eskatu eta onartua izan beharko da derrigorrez 2017/2018 ikasturtean. (Salbuespen egoerak eman ezker eskaera hauek berraztertuko dira)
2. 2017. urteko errenta aitortpena, ogasunean lortutako 2017. urteko informazio fiskala, Lanbideko RGI-DBE ziurtagiria edota gainontzeko dokumentazioa aurkeztu beharko da.

Eskaerak aztertzeko garaian, berriz, hauek dira Ikastolak dituen irizpideak:

1. Ikaslearen etxebizitzan bizi diren pertsona guztiak hartzen dira kontutan (errolda agiriz justifikatuak.
2. Pertsona horiek guztiak 2017 urte naturalean izan dituzten diru sarrera guztiak kontuan hartzen dira: soldata edo pentsioak(10-T agiria), premiazko dirulaguntzak (Foru aldundiaren edo udaletxearen agiria), RGI-DBE (Lanbide), banandutako bikotearen diru laguntza (epailearen agindua),.....
3. Batutako diru sarrera osoa eta etxebizitza horretan bizi diren pertsona heldu nahiz ume kopurua hartuko dira kontuan.
4. Ikastolak 2018/19 ikasturtean izan duen baremoa diru laguntzak emateko hau izan da:

		Kuotan beherapena	HAUR EDO NERABE KOPURUA FAMILIAN UNITATEAN			
			1	2	3	4
HELDU KOPURUA FAMILIA UNITATEAN	1	50%	10.548,2 €	12.982,4 €	15.416,6 €	17.850,8 €
		35%	13.185,3 €	16.228,0 €	19.270,8 €	22.313,5 €
		20%	14.943,3 €	18.391,7 €	21.840,2 €	25.288,6 €
	2	50%	14.605,2 €	17.039,4 €	19.473,6 €	21.907,8 €
		35%	18.256,5 €	21.299,3 €	24.342,0 €	27.384,8 €
		20%	20.690,7 €	24.139,2 €	27.587,6 €	31.036,1 €
	3	50%	18.662,2 €	21.096,4 €	23.530,6 €	25.964,8 €
		35%	23.327,8 €	26.370,5 €	29.413,3 €	32.456,0 €
		20%	26.438,1 €	29.886,6 €	33.335,0 €	36.783,5 €
	4	50%	22.719,2 €	25.153,4 €	27.587,6 €	30.021,8 €
		35%	28.399,0 €	31.441,8 €	34.484,5 €	37.527,3 €
		20%	32.185,5 €	35.634,0 €	39.082,4 €	42.530,9 €
	5	50%	26.776,2 €	29.210,4 €	31.644,6 €	34.078,8 €
		35%	33.470,3 €	36.513,0 €	39.555,8 €	42.598,5 €
		20%	37.933,0 €	41.381,4 €	44.829,9 €	48.278,3 €
	6	50%	30.833,2 €	33.267,4 €	35.701,6 €	38.135,8 €
		35%	38.541,5 €	41.584,3 €	44.627,0 €	47.669,8 €
		20%	43.680,4 €	47.128,8 €	50.577,3 €	54.025,7 €



LEKEITIOKO IKASTOLA

biharko herritarrak hazten

Diru sarrerak kalkulatzeko garaian beti aurreko 2017. urtekoak kontutan hartuko dira.

Beka onartuz gero, Mantenu gastuei dagokien beherapen portzentaiekin ordainduko dituzte 2018/2019 ikasturtean (irailaren 1etik abuztuaren 31a arte). Beste kuota guztietan ez da beherapenik izango. Hala ere, ikastolako beka sistema propioak 6.000 euroko diru poltsa izango du. Eskaera guztien artean diru kopuru hori gainditzen bada, eskatzaileen artean banaketa proportzionala (prorrateo) egingo da. Diru laguntza hau Ikastolan ikasten duten familiako kide guztientzat izango da.

Beka eskuratu dutenei auzolanean eta ikastolako ekintzetan parte hartzeko eskaria luzatuko zaie.

#### **Eskaera orriak eta epeak:**

- Eskaera orriak idazkaritzan izango dituzue eskuragai.
- Eskaerak eta dagozkion dokumentuak aurkezteko epea: **urtarrilaren 14tik 28ra arte (biak barne).**